

Kotilleatu



UXUE APAOLAZA LARREA

Inor ez gara kotillak. Denei molestutzen digute kotillek. Inori ez zaio inporta ondokoaren bizitza, gutxiago famatuena, bizitza aberats eta entretenituak ditugu, inori begira aritzeko. Norbaitek onartzen badu kotilla dela, dibertigarria izango da, maliziarik gabea. Kotillak ez garenak autonomoak gara beraz, independenteak: nork aldarrikatzen du normalean taldearekiko independentzia hori?

Kontua da inor ez garelako kotillak, baina denoi iruditzen zaigula kuxkuxeroz inguratuta gaudela. Deseroso sentitzen garelako ez soilik gutaz esango dutenagatik, besteagatik esaten digutenak kezkatu behar gintuzke batez ere, hor ezkutu joango da lezioa, taldekoa izateko pasa behar ez den muga, zera egingo bazenu, edo egingo ez bazenu etorriko zaizun zigorra.

Beraz, telebistan edo aldizkarietan, botereak kotilleatzen duenean, zein balio transmititu nahi digute? Noiz bihurtzen da kotilleo saio bat arriskutsu, bertan behera geratzeko? Gorrirentzat eta marikoientzat dela aldarrikatzen duenean, feminista dela, eta feminista izaten ikasiko duela. *Sálvame* kasu.

Zein esparru kotillekin okertu izan dugu muturra? Ile apaindegiak? Hernaniko garbitegia, kasu, esaten da, emakumeek beren kontuez hitz egin ahal zuten espazioa zela, baita politikoki antolatuta zitezkeen lekua ere. Kotillak izango ziren? Kotilleoa izan daiteke autodefentsa mekanismo bat? Izan daiteke boteretik kanpo bizi denaren, eta komunikabiderik ez duenaren defentsa mekanismoa? Emakumeona? Horregatik mespretxatu dugu? Gure artean kotilleatzea da gizonen mundu honetan geure buruak babesteko modua? Beharbada bai. Kotillea dezagun, gure alde. ●

ISRAELEN KOLDARRALDIA



ADUR

MOTZEAN

Eliza katolikoari loturiko Berakah elkarteak bide judizialek etxegabetu nahi ditu atari bereko hiru etxebizitzatan bizi diren hiru familia Gasteizko Alde Zaharrean, Auzoan Bizi etxebizitza sareak salatu duenez.

Emeki festibalaren lehen edizioa egingo da urriaren 21-22an, Urruñan.

Euskal Herriko Neska* Gazteen sareak Baterajotze arrakastatsua egin du Usubilen, eta greba feminista orokorrera begira indarrak hartzeko baliatu dute aukera.

Mugimendu Sozialistak milaka gazte elkartu ditu Topagunean, Atarrabian eta Burlatan. "Estrategia sozialista berri baten nolakotasunaz eta erronkez" eztabaidatu dute.

Elizondoko adinekoen egoitza publikatu du Baztango Udalak. Kudeaketa zeraman enpresa pribatuarekin kontratua eten du Patronatuko Batzordeak.

Haur eta gazteei zuzenduta euskaraz dagoen literatur azoka bakarra da Ikusi Mikusi, urriaren 20-21ean Saran egingo dute eta Euskal Herriko 33 eskolako 1.396 ikaslek hartuko dute parte.